


## DANTZAN IKASI 2010 - INKESTA

---

Dantzan Ikasiren ikastaro eskaintza, curriculum, eta ikasketa arautu batzuk izan dira egindako inkestaren galdegaiak. Emailez eta dantzanikasi.com webgunearne bidez jaso dira erantzunak, eta guztira 66 lagunek bete dute inkesta. Galderei erantzuteko aukera desberdinak eskaintzeaz gain, iruzkinak eta bestelako oharrak idazteko aukera eskaintzen zuen galdetegiak eta erantzun askotan erabili dute aukera hori.

### 1. Zer iruditzen zaizu Dantzan Ikasiren ikastaro eskaintza?




Ondo, beharrezkoa da horrelako zerbait egotea.	52 %80
Ikastaroak ez dira interesgarriak.	0 %0
Interesgarriak dirudite, baina ezinezkoa zait joatea.	10 %15
Beharrezkoak dira ikastaroak, baina hainbat kontu faltan edo hobetzeko ikusten ditut, adibidez...	4 %6
Besterik	0 %0

#### Iruzkinak:

- *Zailtasunak, egoerak eta hastapenek behar duten maitasun guztia medio, komeniko litzake ikastaroa emango duenari aurrez programatxo bat edo eskatzea, nondik hasi eta nora joango den ikastaroa... Alegia, poliki poliki itxura "pedagogikoa" ematen joan asuntuari. Ikasketa arautuak eskatuko lukeen planifikazioa bideratzen joatea akaso.*
- *Nik neuk, hitz jardun luzeegiak eskaini gabe, azalpen teorikoak ere eskertuko nituzke.*
- *Apunteak, enkuadernauta eta portada polittakin (eta erreferentziekin).*
- *Maila desberdinak egotea eta ez erakustea teknika minimo bat.*
- *Ikastaro gehiago, jarraiago, sakonago... + "haurrak eta dantza: zer / nola" hausnarketa - eztabaida - partekatze orokor sakona*
- *Ongi letorke dokumentazio grafikoa ere banatzea.*
- *Joan ezin dugunentzat bideoak sarean jartzea ongi egongo litzateke.*
- *Uste dut, Kurtso batzuk oso ordutegi txarrak izan dutela, Zuberoako Taula Gimnasitko koreografikoaren kasua. Asteburuetan Hobeto. Eta beste batzuk luzeagoak izan daitekela.*
- *Batez ere ,tokian tokiko dantzen jatorria eta estiloa jasotzeko eta talde desberdinen hartu-emana garrantzitsua delako.*

## 2. Izan duzu dantza tradizionaleko ikasketen curriculum proposamena begiratzeko aukerarik?




Bai, eta gauza batzuk gehitu edo/eta kenduko nituzke.	1	%2
Bai eta egoki deritza.	16	%25
Bai, eta ez nago batere konforme planteamenduari.	0	%0
Ez, baina lana egiten dutenek hori jarri badute ni konforme.	7	%11
Ez, ez dut astirik izan edo ez dut tarterik hartu oraindik.	35	%54
Ez, ez zait interesatzen.	0	%0
Besterik	1	%2

Euskal dantza balioan jardunaldia ekainaren 12an egin zen, eta egun horretan bertan jarri zen sarean (dantzanikasi.com helbidean) curriculumaren inguruko dokumentazioa. Inkesta azaroaren 8an abiatu zen, bost hilabete beranduago, eta hilabetez irekita izan zen.

Inkesta erantzun dutenetatik %27ak irakurri du dokumentazioa. Curriculumak irakurri duten 17 lagunetatik 16k ontzat eman dute. Atal honetan ez da iruzkin askorik izan. Bi ohar bakarrik helarazi dizkigute. Horra:

- *Garatu beharko lirateke gehiago atal batzuk.*
- *Hain da larria premia, ez nukela denbora handirik galduko egokia den ala ez pentsatzen. Hobe zerbait martxan, nahiz eta ideala ez izan, ezereza baino.*

## 3. Dantza tradizionalari buruzko ikasketa arautu batzuk eta titulazio bat behar direla iruditzen al zaizu?




Bai	60	%91
Ez	6	%9

Erantzun gehienek (%91) ikasketen beharra azpimarratzen badute ere, zenbaitek kezka agertzen du horren inguruan. Jasotako iruzkinak kezka horien erakusle dira:

- Ez nago ziur ikasketa arautua beharko litzakeen, nolabaiteko ikasketa-ikastaro eskaintza egotearekin ados nago baina ikasketa arautua jartzearekin bestela mantentzen diren gauza asko galtzeko aukera ere hor dagoela ikusten dut. Ez nago ziur..
- *Titulazioa beharrezkoa ez zait iruditzen batez ere ni bezelako herri txiki batean lanean dabilen batentzat baina bai agian dantza talde potente bateko irakaslea izateko.*
- *Ez dut oso garbi ikusten.*

#### 4. Horrelako ikasketa batzuk eskainiko balira...



Aukera izanez gero saiatuko nintzateke egiten.	52	%80
Gustatuko litzaidake, baina ezinezkoa zait.	2	%3
Nik neuk ez, baina horretan jardun nahi dutenek egin beharko lituzkete.	9	%14
Ez dut horren beharrik ikusten.	0	%0
Besterik ("Iruzkinak" laukitxoan azaldu)	2	%3

Dantza tradizionalaren inguruko ikasketak egiteko aukera izanez gero ahalegina egiteko prest ageri dira inkesta erantzun duten gehienak (%80). Beste multzo batek (%14) berak ikasketak egiteko asmorik ez, baina langintza horretan aritu nahi duenak egin beharko lituzkeela uste du. Iruzkinetan nahian eta ahalaren arteko kezka antzematen da. Konpatibilizatzeko aukera izango ote den, nork bere bizi-dinamikarekin bateragarri izango ote den...

- *Eskaintzaren arabera hartuko nuke erabakia.*
- *Lanean edo dantzen irakaskuntzan dihardugunon beharra eta interesa kontuan hartu, eta modua (malgutasuna) egon dadila guk ere ikasketok jarraitu ahal izateko.*
- *Saiatu saiatuko nintzateke, baina egia esanda zaila ikusten dut dana antolatzea ahalik eta jende gehien agertzeko, bakoitzak bere bizi-tza dauka mila ekintzekin. Hala eta ere uste dut oso ideia interesgarria dela eta animatzen zaituztet egitasmoa aurrera atera dezazuen.*